



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Asteartea
2010-01-05

VIII URTEA 1.894. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Mikel Telleria, CD-aren aurkezpen ekitaldiaren aurretik Casino elkartean. E. EZEIZA

MIKEL TELLERIA
IDAZLEA

«Herrian eragina izan duten
1.800 pertsonaien biografiak
bildu ditut lan honetan»

TOLOSA Atzo aurkeztu zuen 'Tolosa egin dugun tolosarrok' bere azken argitalpena; CD batean argitaratu du bilduma lana 2

Herriko sei kirolari omendu ditu Udalak

GAZTELU Zabala, Gabirondo, Ion eta Andoni Goikoetxea, Otegi eta Gorostidi dira sarituak 6

Inpernu Gazte Asanbladak deituta manifestazioa egingo dute gaur

TOLOSA Martxa 17:30ean irtengo da Triangulotik 'Inpernu aurrera' lelopean 7

Perurenaren eta Mujikaren saiakera antzuak

ASTEASU Usarrabi pilotalekuan herri kirol jaialdia antolatuta zuten urte zahar egunean 5



Iñaxio Perurena leitzarrari 300 kiloko harriak ihes egin zion Asteasun. HITZA

1.500 korrikalari inguru San Silbestre eguneko krosetan

KIROLA Lizartza, Tolosa eta Villabona-Zizurkilen urtea korrika eginez agurtu zuten «giro onean» 3



skunkfunk
people de funk

neska eta
mutil arropa

Skunkfunk Tolosa
Kale Nagusia 21-23

Etor zaitez SKFK ezagutzera, Skunkfunk-en linea berria



Tolosan izan da Kortxea Doktorea

KULTURA • Kortxea Doktorea txotxongiloen etxea bisitatu zuen atzo. Musika tresnen fabrikako langileek Tolosako haurrak abesten eta dantzan jarri zituzten. Gabonetako oporretako azken egunak ongi pasatzeko, Sointek Produzioak-ekoek beraien azken lana

aurkeztu zuten. Antzokitik barrena, saltoka, abesten eta dantzan ibili ziren emanaldiko protagonista diren fabrikako lutierra, hau da, Kortxea Doktorea, Filomena langilea eta bi hauen laguntzaile eta mekanikoa den Koxme jauna. **E. EZBIZA**



E. EZBIZA

«Tolosari izaera eman dioten pertsonaiak ekarri ditut gogora»

MIKEL TELLERIA › Idazlea

Kultura › Atzo aurkeztu zuen Mikel Telleriak bere azken lana; 'Tolosa egin dugun tolosarrok' du izenburu argitalpenak.

ESTI EZEIZA

Tolosa egin dugun tolosarrok lana kaleratu du Mikel Telleria tolosarrrak. Atzo iluntzean aurkeztu zuen argitalpena. Bertan, herrian zerbait egin duten pertsonaiak eman nahi izan ditu ezagutzera, beste hainbat bitxikeria eta datu-eren artean. Lana, CD formatuan bildu du, eta tolosarren artean zabalteko asmoz, oparitu egingo du. **Zer aurkitu daiteke argitalpen berezi honetan?**

Tolosaren inguruko kontaketa bat da. 1900 ingurutik hasten da, eta gaur egun arte luzatu. Kontakizun horren baitan, garai horretan jaiotzen ziren pertsonaien berri ematen dit. Gisa honetan, orden kronologiko batean jarrita, denera, 1.800 biografia inguru bildu ditut. **Biografiez gain, beste hainbat datu ere aurkitu daitezke.**

Biografiekin amaitu ostean, zerbait eranskin gehitzea interesgarria izango zela pentsatu nuen, eta horrela egin dute. Batean, 1340tik hona, Tolosak izan dituen alkate guztiak izendatzen ditut, eta hauek zer egin zuten aipatu. Beste batean, Tolosako hamar auzoen inguruko informazioa ematen dut. Hirugarrenean, erakundeetatik hitz ematen dut, politiko, kultural, erlijioso, ludiko eta abarrez. Honekin, lotuta, ohiturez ere idatzi dit. Urteko egun bakoitzean dauden tradizioak aipatzen ditut. Bestetik, gaikako ohiturak: zezenketenak, estropadak... Azken eranskinean, eboluzioaz hitz egiten dut. Hau, nagusiki, Angel Martinez arkitek-

toaren liburu batean dago oinarrituta. Tolosaren hainbat plano aurkeztu ditut atal honetan. Amaitzeko, kronologia bat ipini dut, urte bakoitzean zer gertatu zen azalduz.

Zergatik aukeratu dituzu pertsonaia horiek eta ez beste batzuk?

Duela urte gutxi, Tolosako idazle inguruko liburu bat idatzi nuen. Eta orain, kultur arloko beste pertsonaiez hitz egiten zuen beste bat egiteko asmoa nuen, baina, azkenik, bere bizitzan zerbait egin duten lagunak gogora ekartzea erabaki dut. Ona edo txarra, baina zerbait egin dutenak, eta eragina izan dutenak Tolosan. Batek esaterako, industria bat eraiki zuen, beste bat arkitektoa izan zen, artista batzuk ere badaude... Azken batean, izaera eman diote Tolosari. Horren adibide dira, Gorosabel, duela gutxi zendu den Pirula... Ez da Tolosako pertsonaia handien inguruko liburu bat, baizik eta, gauza txikiak baina esanguratsuak egin dituztena.

Informazio asko bildu duzu lan honetan, baina ulertzeko modu erraz batean aurkezten duzu.

Oso erraza da irakurtzeko. Nire us-tetan, historia bi modutan aurkeztu daiteke. Hau da, gertaera bakoitza aztertuz, zergatik izan zen, nola... edo, bitxikeriekin eta kontakizun zehatzekin. Nik horrela egin dut, jendeak errazago ulertu dezan, eta informazioa modu garbia egoteko.

Dokumentazio lan handia egin behar izan duzu beraz, informazio guzti hau biltzeko.

Liburu oso osatua da. Bilketa lan bat da, ez da ikerketakoa. Kultur arloko informazio guztia aurkitu daiteke bertan. Nere ustez irakurtzeko erraza da liburua, baina gauza askotaz ohartzeko aukera ere ematen du.



Ordizian lehiatu ziren Tolosaldea Igeriketa Kirol Taldekoak. HITZA

Eskualdekoak munduko onenen pare

Igeriketa › Nazioarteko Igeriketa Txapelketa jokatu zuten joan den astean Ordizian eta emaitza oso onak lortu zituzten IKTkoek.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Igeriketa Kirol Taldeak Ordiziako Nazioarteko Igeriketa Txapelketa jokatu zuten joan den astean Ordizian eta emaitza oso onak lortu zituzten IKTkoek.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Bi haur txiki zaintzeko, emakume euskaldun bat behar da. Harremanetarako telefono zenbakia: 652 74 74 23.

Eskualdekoak ongi jubenilen Gipuzkoako Banakako Xake Txapelketa

ERREDAKZIOA

Joan den astean jubenilen Gipuzkoako Banakako Xake Txapelketa amaitu zen Donostian. Tolosak bi ordezkari izan ditu bertan, Jokin Mendia eta Aitor Intxaurren. Hauekin izanda baita ere Aitor Alkorta billabonatarra, eskualdeko ordezkari osoa osatuz. Emaitza bikainak lortu dituzte.

Mendia izan da hiruen artean ondoen sailkatu dena. Bosgarren geratu zen, txapeldunarengandik puntu bakarrera eta rankingeko lehenari irabazi zion bakarra izan da. Lastima izan zen txapelketa erdialdean izandako beharrekada, bestela esku-eskura izango baitzuten podium postuak. Alkorta berri, zazpigarren geratu zen. Partida zailak izan zituen, baina bere joko itsaskorrari esker paperean bera baino hobekien ziren askoren aurretik geratu zen. Azkenik, Intxaurrondok zortzigarren postuan berdindu zuen azken txandaren lortutako garaipen handiari esker. Bere lehen urtean sailkapeneko goiko postuetan ibiltzeko adinako maila duela erakutsi du.

Bestalde, bihar urteroko jokatzen den Erregetako Txapelketa jokatuko da aurtengo. Oargi elkartearen izango da, 10:00etatik aurrera. Xake azkar erara jokatuko da, bost minutuko partidetara. Eskualdeko edonork parte hartu dezake. Horretarako aski izango da Oargi-rahurbiltzea txapelketa hasi baino minutu batzuk lehenago.

Jendetza bildu da San Silbestre eguneko krosetan

Kirola » Jende askok agurtu zuen 2009. urteko Lizartzako, Tolosako eta Villabona-Zizurkilgo Urte Zaharreko lasterketan parte hartuz.

ERREDAKZIOA

Jende askok agurtu du 2009. urteko modu osasuntsuan, korrika, hain zuzen. Eskualdean herri askotan egin zituzten Urte Zaharreko edo San Silbestre eguneko krosak, horien artean, Lizartzan, Tolosan eta Villabona-Zizurkilgoan.

Hiru lasterketa hauetatik azken bost urteetan Lizartzan egindakoa du izen bereko herrikoia, eta horrexegatik «urtero pelotoian ibiltzen gara, denak batera, azken bueltan edo egiten ditugu *springak*, baina guretzako garrantzitsua parte hartzea da», argitu dute Otsabio Kirol Elkarteak kideak. Lasterketan helduek 5 bat kilome-

tro egin behar izan zituzten eta 65 pertsona inguruk hartu zuten parte. Bukatu ondoren txokolate beroa banatu zuten guztien artean. Beste batzuk poteatzera ere joan ziren. San Silbestre krosarekin nahikoa ez, eta hurrengo egunean, urteari hasiera emateko krosetan parte hartutako 44 bat pertsona Otsabioko gurutzera ere igo ziren.

Tolosan 826 parte hartzaile

Tolosan berriz, hamabigarrenez, Samaniego-Orixe ikastetxeak antolatutako Elkartasun Krosa egin zuten. Guztira 826 pertsonak hartu zuten parte, 426 heldu (80 emakumezko eta 346 gizonezko) eta



Tolosako Elkartasun Krosako helduen irabazleak; nesketan Ane Elizegi, Amaia Arbillaga eta Alazne Ezeiza eta mutiletan Unai Arroyo, Ramon Otegi eta Ander Ortiz. HITZA



400 gaztetxo inguru. Honakoan ere helduek 5 bat km egin behar izan zituzten.

Probarik luzeenean 600 korrikalari

Probarik luzeena, hala ere, Villabona eta Zizurkilgo artean egin ohi duten krosa izan zen, bertan 7 kilometro egin behar izan baitzituzten. Zunbeltz eta Urkamendi elkarrekin antolatutako XXVI. Urte Zaharreko lasterketan 600 lagunek hartu zuten parte eta «giro ederra» izan zuten.



Lizartzan 65 bat pertsonak hartu zuten parte Urte Zaharreko lasterketan. HITZA

» IRABAZLEAK

Tolosako Elkartasun Krosa

■ Helduak, gizonak.

1. Unai Arroyo. 15 minutu eta 38 segundo.
2. Ramon Otegi (1. beteranoa). 15 minutu eta 39 segundo.
3. Ander Ortiz. 16 minutu eta 19 segundo.

■ Helduak, emakumeak.

1. Ane Elizegi. 19 minutu eta 12 segundo.
2. Amaia Arbillaga. 19 minutu eta 46 segundo.
3. Alazne Ezeiza. 20 minutu eta 31 segundo.

■ Infantil mutilak.

1. Odei Arrieta
2. Iñigo Garmendia.

■ Infantil neskek.

1. Jone Gomez.
2. Nerea Murua.

■ Alebin mutilak.

1. Unai Iribar.

2. Luis Mari Garikano.

■ Alebin neskek.

1. Saioa Zubillaga.
2. Eider Calahorra.

■ Benjamin mutilak.

1. Ibai Salaberria.
2. Iñaki Beitia.

■ Benjamin neskek.

1. Izaro Perurena.
2. Miren Alargunsoro.

Villabona-Zizurkilgo Urte Zaharreko Krosa

■ Helduak, gizonak.

1. Eneko Garin. 22 minutu eta 49 segundo.
2. Unai Señoran. 23 minutu eta 07 segundo.
3. Patxi Urizar. 23 minutu eta 10 segundo.

■ Helduak, emakumeak.

1. Rosa Luera. 28 minutu eta 34 segundo.

2. Aitziber Ibarbia. 29 minutu eta 03 segundo.

3. Alazne Irureta. 29 minutu eta 27 segundo.

■ Benjaminak.

1. neska: Iraia Irazusta.
1. mutila: Telmo Garmendia.

■ Alebinak.

1. neska: Garazi Otegi.
1. mutila: Ander Zuriarrain.

■ Infantilak.

1. neska: Maider Alfonso.
1. mutila: Xabier Zuriarrain.

■ Kadeteak.

1. mutila: Daniel Diaz.

■ Jubenilak.

1. neska: Tamara Lozano.

1. mutila: Jokin Otaegi.

■ Beteranoak.

1. emakumezkoa: Lurdes Colomo. 29 minutu eta 33 segundo.

1. gizonzkoa: Patxi Urizar. 23 minutu eta 10 segundo.



Villabona-Zizurkilgo krosetan 600 korrikalari inguru bildu ziren. HITZA

H Hilberriak

MARIJO LONBIDE ORIKAIN

Oihaneko pagoak blai aideratuz hiru elai ostadarraren harian dira hirurak pausatu nahi.



LEGAZPI
2010eko
urtarrilaren 5a

Muxu handi bat
Joxi, Asier eta losu

MARIJO LONBIDE ORIKAIN



Joan zaizue ama laztana, bihotzeko emaztea, zaila izan behar, ondoan nahi ta hari joaten uztea. Nahiko genikek aurrera eitteko ilusioa piztea, hire ondoan izango gaittuk goxatu nahian astea.

Gainzuriko lankideak eta lankide ohiak

URRETXU-
ZUMARRAGA
2010eko
urtarrilaren 5a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel: 943-65 56 95

Izarrak esan die gelditzeko hemen

Eguberriak » Erregeen kabalgatak antolatu dituzte gaurko hainbat herritan; Gabonetako ospakizunen azken ekitaldia izaten da.

IMANOL GARCIA

Eguberrien azken gaua iristear da. Gaur arratsaldean eskualdeko hainbat herritan Errege Magoen bisita izango dute haurrek eta oheratu aurretik etxe askotan urduri izango dira hurrengo goizean zer opari jasoko duten asmatu nahian.

Bitartean, gaurko kabalgatek ilusioa piztuko dute. Ez da nolana hiko lana izaten antolatzaileena, dena pentsatu bezala atera dadin. Tolosakoan, esaterako, 300 lagunek hartzen dute parte, eta Leitza-koan eta Asteasu-koan 50etik gora.

Ohitura denez, Tolosan azalduko dira Erregeak lehenengo. Iurre-amendi egoitzara joango dira, oraindik egun-argiz, eta haur mor-
do egongo da itxaroten bertan. Muxua eman, gurasoek argazkia atera eta haurrek jaso nahi dituzten opariak esango dizkie Erregeei. Gero, kabalgatan, hiruei hainbat-
tekg lagunduko die kaleetan zehar: Mulanbo, erraldoiak, Tolosako Musika Banda, dultzaineroak, Udaberri Dantza Taldea... eta jaiotza lehiaketan parte hartzen dutenek.

Leitzaan atzo Erregeen laguntzaileek egin zuten lan pixka bat eta haurren gutunak jaso zituzten plazan. Gaurkorako, iragarpenek asmatzen badute, antolatzaileek egindako lan handia zapuztu dezake eguraldiak. Euria eta hotza iragarri dute eta Leitzaan, Bidegoian eta Orexan elurra ere egin dezake.



Leitzaiko haurrek Erregeen laguntzaileei gutunak eman zizkieten atzo arratsaldean herriko plazan. A. IMAZ



Aurten ere Erregeek bisita egingo diote jaiotza bizidunari Trianguloan. Iaz bezala, Berastegin haurrek Erregeekin egoteko aukera dute gaur. R. CALVO/I. TERRADILLOS



» ERREGE MAGOEN KABALGATAK (URTARRILAK 5, GAUR)

Alegia

■ **12:00etan.** Ume jolasak egingo dituzte plazan. Ondoren txokolatada egingo da.

■ **19:00etan.** Hiru Errege Magoak Orendaingo bidetik jaitsiko dira. Larraitz auzoa zeharkatu ondoren, San Joan kalea hartu eta herrigunea zeharkatuko dute. Ibilbidea plazan bukatuko dute eta gero udaletxeko balkoitik hitz egingo dute Erregeek.

Amezketza

■ **18:00etan.** San Martin auzotik jaisten dira Errege Magoak eta herri zeharkatu ondoren 18:45ak aldera frontoira iritsiko dira. Bertan gozokiak banatuko dizkiete haurrei.

Anoeta

■ **19:00etan.** Basagain menditik aterako da Erregeen kabalgata. Erregeak traktorean iritsiko dira herriko plazara, Anoetako txistula-

riek lagunduta. Bertan gozokiak banatuko dituzte.

Areso

■ **17:30etan.** Errege Magoak etxetik ibiliko dira eta haurrei opariak banatuko dizkiete.

Asteasu

■ **20:00etan.** Elizmenditik Erregeak herrira jaisten hasiko dira Olen-tzerorekin batera. Udaletxeko arkupeetara 20:30ak aldera iritsiko dira. Bertan jaiotza biziduna izango da eta eskaintza egingo dute. Bertsolarien, Asteasu-ko Abesbatza-
ren eta herriko dantzari txiki-
en saioak izango dira. Ondoren, aurrez gutuna bidalitako haurrei opariak banatuko dizkiete Erregeek.

Berastegi

■ **18:30etan.** Errege Magoak herriko plazara iritsiko dira Urdinarren mendiko Etxoin-berri baseritik, Olen-tzerok bidea erakusten diela.

Bertan jaiotza biziduna egongo da eta hiru erregeek eskaintza egingo dute bertan. Berastegiko haurrek ere berdin egingo dute, talo, gaztaina, barazki eta abarrek. Ondoren Baltasar, Meltxor eta Gasparrek opariak emango dizkiete umeei eta helduek sorpresa izango dute.

Berrobi

■ **20:00etan.** Larte eta Seskea baserri-
tik jaitsiko dira Errege Magoak eta herrian zehar ibilbidea eginez plazara 20:45ak aldera iritsiko dira. Bertan jaiotza biziduna izango da eta hori gurtu ondoren, erregeek haurrei opariak banatuko dizkiete.

Bidegoian

■ **19:00etan.** Errege Magoak Goiatz aldetik Bidaniko frontoira iritsiko dira. Bertan jaiotza girotua egongo da, hainbat animala eta gaztaina jatearekin.

Irura

■ **18:00etan.** San Miguel Plazan txokolate beroa banatuko dute bizkotxoekin.

■ **19:00etan.** Kalez kale, Errege Magoen etorrera ospatuko da, ondoren herriko plazan hauek opari banaketa egingo dute.

Leitza

■ **18:30etan.** Hiru Erregeak herriko belenera joango dira. Bertan Jaiki abesbatzak saioa egingo du. Zal-dietara igo ondoren, Erregeak herri-
ko plazara joango dira eta bertan haurrei gozokiak banatuko dizkiete.

Lizartza

■ **19:30etan.** Zelain aldetik Hiru Erregeak eta pajeak herrira jaisten hasiko dira. Abereen gainean jarri-
rik, herria zeharkatu eta frontoira helduko dira. Bertan dantzari-
ek ongi etorria egin ondoren opariak banatuko dituzte.

Orexa

■ **17:30etan.** Errege Magoak abiatzen dira etxetik etxera joateko haurrei opariak banatzen.

Tolosa

■ **16:30etan.** Errege Magoak Iurre-amendi egoitzara joango dira eta haurrek beraiekin egoteko aukera izango dute.

■ **19:00etan.** Errege Magoak Izas-kundik behera jaisten hasiko dira. Tolosako kaleetan barrera ibili ondoren, Triangulo plazan atsedena hartuko dute, ondoren ibilbidearekin jarraitzeko. Zerkausian amaituko dute eta bertan harrera egingo zaie.

Villabona

■ **19:00etan.** Amasatik behera Erregeen Kabalgata jaitsiko da. Plazan opariak eta gozokiak banatuko dituzte. Ondoren herrian zehar itzuli bat emango du kabalgata-
tak.

Perurenak ezin izan zuen lana behar bezala bukatu 300 kiloko harriarekin

Asteasu » Usarrabi pilotalekuan herri kirol zaleek aizkora txapelketaz eta errekor berriaren ahaleginaz gozatu zuten.

ENERITZ MAIZ

2009. urteko azken egunean, herri kirol zaleen hitzordua Asteasuko Usarrabi pilotalekuan izan zen eta zaleek ez zuten hutsik egin. Bestetik, Iñaxio Perurena leitzarrak 300 kiloko harria jasotzeko saiakera ikusi ahal izan zuten, eta bestetik, Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketako saioa ere izan zen.

Horiek horrela, Perurenak 300 kiloko harria jasotzeko saiakera eguna jarria zuen eta bizkarrera jaso bazuen ere, ezin izan zuen lana behar bezala bukatu. Jaso, jaso zuen, baina harriari ezin izan zion etsi bizkar gainean.

Egun batzuk pasa ostean, Iñaxio Perurenak bere sentazioen berri eman dio HITZARI. «Sentsazio txarrik ez daukat, jasoaldi bezala, errekor batean kostatuko zait berriro horrelako jasoaldia ematea», adierazi du. «Lurretik oso ongi ateranuen eta jasoaldia kolpeetan ere ongi joan zen. Buelatu ondoren, patxadarekin amasa hartu eta dotore joan zengora. Hirugarren kolpea eman ondoren, jende guztia oihuka zegoen eta indarrak ezin dituzu kontrolatu eta daukazun guztiarekin tiratzen diozu. Oso ongi joan zen eta pasatu egin zen atzera», gogoratu du Perurenak. Aitaren eta ingurukoen animoak ere jaso ditu, hala ere: «Lagunak hirugarren kolpea ikusi zutenean jada ospatzen hasi ziren baina azkenean atzeraka joan zen. Aitak berriz, horrelako jasoaldi bat eman ostean ongi, hori bai, hanka harripatu izan balit, argi dago nire harri handien ibilbidea hor bukatuko



Iñaxio Perurena gazteak, harria bizkar gainera igo zuen baina ihes egin zion eta lurrean bukatu zuen apurtuta. HITZA



Jexux Mari Mujika ibartarra eta Zubiaga kaleratu zuen bikoa lanean. HITZA

zela eta minik hartu ez zenezan pozik hartu behar».

Nahiz eta jaso, gerta zitekeen harria jaso gabe egin behar izatea etxerako buelta eta alde horretatik, Iñaxio Perurena «gerrira atera

eta gora xamar geratzen bazaizu harria, ezin jasoan geratzen zara eta hori beste tristura bat izaten da. Jasoaldi guztia horrela joanda gustura nago». Hurrengo ahalegina buruan ote duen galdetean baietz

ko argia eman du: «Harria erabat txikitua geratu zen eta oraindik ez dakit nola moldatu beharko naizen baina, entrenamenduetatik ez dut gelditu behar. Etxean 280 kiloko harri badut eta horrek in jarrai-

tuko dut jasoaldi batzuk emanaz puntua ez galtzeko. Hil honen amaiera azkarregi izan da, baina otsailaren hasiera aldera egin nahi nuke. Puntu oso onean nago eta ez daukat ez gogortasun, ezta minik ere eta ezin da puntu hau galtzen utzi».

Aizkolarien saioa

Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketa 2009-2010 Eusko Label Sari Nagusiko saioak ere jokatu zituzten.

A taldean, Antonio Senosiain eta Aitor Senosiain anaiek ostutako bikotea, Floren Nazabal eta Arkaitz Jauregiren aurka lehiatu zen. Nazabal eta Jauregik, 21 minutu behar izan zituzten sei modalitateetan enbor guztiak mozteko eta Senosiain anaiek, hauek baino 44 segundo gehiago behar izan zituzten. Azken unera arte, lehia bizia izan zen bikoteen artean.

Bestetik, B taldeko lehia Arria V eta Txapartegi, Zubiaga eta Jexux Mari Mujika ibartarraren aurka izan zen. Ibartarrak, Zubiaga lagun zuela, ezin izan zuen saioa irabazi eta ondorioz, txapelketatik kanpo geratu dira. Lehenek, 23 minutu eta 45 segundo behar izan zituzten eta Zubiaga eta Mujikak, berriz, 25 minutu eta 56 segundotan bukatu zuten egin beharreko lana. Arria eta Txapartegik osutako bikotea erregularago aritu zen saio guztian zehar eta Mujika eta Zubiaga kaleratu zituzten.

Errege egunez izango da beste kanporaketa eta 12:00etan hasiko da Elorriko Gazetan. Bertan, Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketa 2009-2010 Eusko Label Sari Nagusiko seigarren edizioa izango da eta C taldearen arteko lehia izango da.

Bertan, Fausto Mugerza I eta Felix Etxeberria beterranoak, Arkaitz Olan eta Ruben Saralegi leitzar gazteen aurka arituko dira. Azken hauek, 2008-2009 edizioko promesen kategoriako irabazleak dira eta Unai Otaño eta Jesus Mari Lasala lesionatu ordezko lekua betetzen ari dira, azken hauek ezin baitute parte hartu.



Herritarrak antzezte lanetan

IRURA » Eguberri eta jai egun hauetan, ekintzaz betetako bi aste dituzte irurarrak. Atzo arratsaldean, musika eskolako aretoan herritarrak egindako antzerkiez gozatzeko aukera izan zuten. Bertan, herriko gazte, haur eta jubilatuek parte hartu zuten. Emanaldiari hasiera, jubilatuen saioak eman zion eta antzezteaz gain kanturik ere ez zen falta izan. Jarraian etorri ziren haur eta gazteen saioak. Musika eskolako aretoa berriz, herritarrek eskaini beharrekoa ikusteko gogoz lepo bete zen. E. MAIZ

Liskarra zinegotzia eta alderdiaren artean

Zizurkil » Raul Vazquez Gonçalves Zizurkilgo Alderdi Popularreko zinegotziak espedientea balio gabetzea eskatu du.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Alderdi Popularrak, Raul Vazquez Gonçalvesi, Zizurkilgo Alderdi Popularreko zinegotziari, 2009ko ekainean, bere militantiari dagokion aldi baterako etenaldi zigorra ezarri zion. Espe-

dientea 2008ko irailean ireki zioten eta zinegotziaren esanetan, «espiediente hori aurrera eramateko PP-k dituen estatutuak ez dituzte inondik inora bete». Eta oraindik, «2009ko urtarrilean jarri zuten errekurtsuaren erantzunik ez dut jaso», esan du.

Hau kontuan hartuta, Juan Carlos Cano Aristoy PP-ko Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako idazkariari, «militantiari dagokion aldi baterako etenaldiaren gaineko araubidezko espediente baliogabetzea» eskatu dio.



Finalerdietako lehen partidan 40-29 irabazi zuen Zeberio II.ak. HITZA

Finalerako txartela jokoan izango du bihar Zeberio II.ak

Elduain » Tejados Aoiz Txapelketako finalerdietako lehen partida erraz irabazi zuen, Badiolarekin batera, Ezkurraren eta Ionon aurka.

Tejados Aoiz Txapelketaz gain Zeberio II. gaur ere ariko da Galarretako erremonte jaialdian, Badiola bikotekidearekin batera, Uterga-San Miguel bikotearen aurka.

Pasa den larunbatean ere erremonte jaialdian garaipena eskuratu zuen Elduaingoak; oraingoan Ion izan zuen bikotekide. Aurrez aurre, berriz, Uterga eta Lizasok osatutako bikotea izan zuen. 20-27 galtzen joan arren ikuskizuna eman zuen Zeberioak eta markagailuari buelta ematea lortu zuen eta 40-36ko emaitza lortu zuen.

Altuna II.a «ondo dago» ebakuntzaren ondoren

Garikoitz Altunak txapelketa utzi behar izan zuen, pasa den abenduaren amaieran partida batean jasotako pilotakada batek garezurrean pitzadura eragin ziolako. Abenduaren 28an ebakuntza egin zioten amezketarrari Donostiako erietxean, eta «guztia ondo atera» zen. Egun batzuk erietxean egin ondoren etxean da amezketarra.

Pitzadurari eusteko ezkerreko begiaren parean bi plaka jarri zizkiotela azaldu zuten sendagileek. Pilotakadaren ondorioz ezkerreko betazalean odolbildua zuela ere jakinarazi zuten.

ERREDAKZIOA

Zeberio II.ak eta Badiolak eskura dute Tejados Aoiz Erremonte Txapelketako finalerako txartela. Horretarako bihar Euskal Jai Berri Reyno de Navarra pilotalekuan Ezkurra eta Ionon aurka irabazi beharko dute, finalerdietako bigarren partidan; neurketa 16:30ean hasiko da. Abantaila garrantzitsua du elduaindarrak, lehen partida 40-29 bukatu baitzuten. Aurkariak irabaztera behartuta daude, hortaz, fase honetan bi partida irabazten dituen sailkatzen baita.

Beste finalerdia, gaur Galarretan

Txapelketa honetako beste finalerako Urriza-Lizaso eta Juaristi-Urrutia bikoteak iri dira jokatzeko.

Lehen partidan 40-31ko emaitzarekin irabazi zuen Urriza-Lizaso bikoteak. Gaur ariko dira 16:00etatik aurrera, Hernaniko Galarreta pilotalekuan.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Lehen egunean, Larte mendira

LEABURU-TXARAMA » Urte berriari ongietorria emateko parrandan hasia edo kirola egitea dira aukerarik hautatuena. Bigarren honen alde egin zuten Leaburu-Txaramako ezker abertzaleko hainbat kidek. Gaz-

teluko herritarrek lagun zituztela Larte mendira igo ziren, urtarriaren lehen egunean. Bertan, urtero bezala, «euskal presoak Euskal Herrira ekar ditzatela» aldarrikatu zuten mendi tontorrean. HITZA

«Herri txikia izanagatik kirolari handiak» dituztela gogoratu dute



Zabala, Gabirondo, Ion eta Andoni Goikoetxea, Otegi eta Gorostidi omendu zituzten pasa den abenduaren 30ean. HITZA

Gaztelu » Herriko hainbat kirolari omendu zituen Udalak pasa den abenduaren 30ean «euren lana eskertzeko».

mendizaleak eta Josune Gorostidi segalariak. «Gaztelu herri txikia da, baina kirol munduan handia eta aberatsa da», azaldu zuten arduradunek. «Urtean zehar egin duten lana goraiatu nahi izan dugu», gaineratu zuten.

Herritar guztiak gonbidatuta

Pasa den abenduaren 30ean egin zuten ekitaldia herrian bertan. Omenduek ororigarria jaso zuten Udaleko arduradunen eskutik, eta ondoren afari merienda egin zuten Erroizpe Azpiko kultur eta kirol elkartearen. Herritar guztiak hartu zuten parte bertan eta giro ederra izan zela nabarmendu dute antolatzaileek.

Ramon Otegi, egun hauetan ere lasterketatik lasterketara

Ramon Otegi korrikalariak omenaldia jaso zuen asteazkenean, baina aje handirik gabe egin zuen

» OMENDUAK

- Antonio Zabala (pala).
- Joxe Gabirondo (segalaria).
- Andoni Goikoetxea (segalaria).
- Ramon Otegi (korrikalaria).
- Ion Goikoetxea (mendizalea).
- Josune Gorostidi (segalaria).

korrika egun bat beranduago, ostegunean, Tolosako San Silbestre krosean. Gazteluarra bigarren postuan sailkatu zen. Herenegun

Ramon Otegi bigarren egin zuen Tolosako San Silbestre krosean eta 11. Euskadiko Kros Motzean

ere Euskadiko Kros Motzeko Txapelketan aritu zen; bertan hamai-kagarren postua eskuratu zuen korrikalariak.



'Ni ere pilotari' ekimenaren baitan hainbat partida jokatu ziren igandean Leitzako Amazabal pilotalekuan. HITZA

Ikaztegietakoko eta Leitzako pilotalekuek atepak zabalik eduki dituzte Eguberrietan

Pilota » Jon Jaunarena leitzarrak Euskal Herriko Lau t'erdiko Txapelketaren finalerdia jokatu du gaur Elite Mailan.

ASIER IMAZ

Eguberrietan hainbat txapelketa jokatu dira Tolosaldean eta Leitzaldean. Alegia, Altzo, Amezketako eta Ikaztegietakoko 90 pilotariren artean VIII. Pilota Topaketak ospatu zituzten. Leitzan *Ni ere pilotari* ekimenaren jardunaldi berri bat jokatu zen eta Aurrera Pilota Eskolako Jon Jaunarenak, atsedendirik hartu gabe jarraitzen du, hori bai, txapelak eta emaitza onak lortuz.

Jon Jaunarena, txapeldun

2009. urtea Zaldibarren amaitu zuen Jon Jaunarena leitzarrak. Bertako txapelketan, 22 urtez azpikoen mailan, finala jokatu zuen gazteak eta Garralda 22-2 menperatu zuen. Ilbeltzaren 2an, larunbatean, Euskal Herriko Lau t'erdiko Txapelketako partida jokatu zuen Jaunarenak, Elite Mailan. Kasu honetan aurkaria, Larrañaga, 15ean utzi zuen. Finalerdiagaur



Ikaztegietakoko VIII. Pilota Topaketaren finalak jokatu ziren larunbatean. HITZA

jokatuko du Sopelan, Albisuren aurka eta 19:30etik aurrera.

'Ni ere pilotari' eta Topaketak

Leitzako Amazabal pilotalekuan *Ni ere pilotari* ekimenaren jardunaldi berri bat jokatu zen igandean. Paleta goman aritu ziren maila desberdinetako bikoteak eta guztira 6 partida ospatu ziren.

Azkenik, VIII. Pilota Topaketak aipatu behar dira, finalak iragan larunbatean jokatu baitziren. Alegia, Altzo, Amezketako, Ikaztegietakoko eta inguruetako herri txikietakoko nes-

ka mutlek parte hartu dute topaketa hauetan, guztira 90 pilotarik. Antolatzaileak «oso gustura» gertatu dira emaitzekin.

Partidak asteazken zehar jokatu ziren aipatu lau herrietan eta gorabeherarik gabe gainera. Finalak Ikaztegietakoko jokatu ziren, «frontoia guraso-jokalari eta ikusleez bete-bete zegoela, giro ezin hobean».

Ikaztegietakoko soinu-joleek tartak bete eta alaitzen zituztela lehiatu ziren maila desberdinetako bost finalak.



Tolosako Inpernu Gaztetxea gaur berri irekiko dute. HITZA

'Inpernu aurrera' lelopean gaur manifestazioa

Tolosa » Bazkari herrikoia, haur jolasak, manifestazioa eta «parranda» antolatu dituzte Inpernu Gazte Asanbladako kideek.

A. IMAZ

Tolosako Inpernu Gazte Asanbladakoek ekitaldiz bete nahi izan dute gaurko eguna. Orain arte egindako lanaren irakurketa ere plazaratu dute Gaztetxeko kideek.

Bazkaritik hasita

Tolosaren erdian aurkitzen den Inpernu Gaztetxean herri bazkaria egingo dute gaur eta «mundu guztia gonbidaturik dago». Ondoren haurrentzako jolasak antolatu dituzte eta 17:30ean manifestazioa egingo dute Triangulotik abiatuta. *Inpernu aurrera, okupatu eta eraiki* izango da martxaren leloa. Iluntzearekin batera «parranda» hasiko da eta Inpernu atepak zabalik egongo direla jakinarazi dute gaztetxeko kideek.

Okupazioaren lehen egunen balantzea egiterako unean argi ilunak aipatu dituzte Gazte Asanbladakoek: «Azken egun hauetan Gaztetxearen garbiketa lanak egi-

ten aritu gara, urteko azken egunean atepak zabaldu ahal izateko. Urte berri egunean 12 kanpaiak bertan joenituen, ondoren, suziri batzuk bota ostean Inpernu atepak zabaldu ziren. Bide batez eskerrak eman nahi dizkiegu bertara gerturatu ziren gazte eta heldu guztiei, sortu zen festa giro ederra jartzen lagundu zutelako. Gau honetarako argia eta musika jartzea ere lortu genuen eta edateko garagardoa eta kalimotxo ere bai. Hala eta guztiz ere salatu nahi dugu Inpernu ixten ari ginenean izan zen Ertzaintzaren presentzia. Hemendik aurrera ere borrokan jarraituko dugu Inpernu aurrera jarrai dezan».

Argi utzi nahi izan dute Inpernu tolosar gazte guztiena dela eta «denak ongi etorriak» izango direla.

«Alkatearekin hitz egin dugu»

Jokin Bildarratzekin elkartu direla ere azpimarratu nahi izan dute TI-GAko kideek: «Tolosako alkatearekin hitz egiten egon ginen eta proiektu honekin aurrera jarraitzea bultzatu gaitu». Azkenik, herri-arratza lehen egunen bizi-lagunak, gonbidatu dituzte Inpernu atarira, bertan egunero 19:00etan egiten duten elkarretarztean parte hartzeko eskatuz.

Laburrak

Elkarretaratzea eta Elkartasun afaria gaur

LEITZA • Maite zaituztegu, elkartasunak ez du mugarik lelopean Leitzako Etxerategi hainbat ekimen antolatu ditu Eguberrietan. Horien barnean gaur elkarretaratzea eta Elkartasun afaria burutuko dira. Lehenik 19:00etan elkartuko dira herriko plazan, aipatu bezala elkarretaratzea egiteko. Etxerategi herri-arratza gonbidatu ditu bertara. Ondoren Elkartasun afaria egingo dute eskolako jatetxean.

Informatika ikastaroetan izena emateko aukera

ZIZURKIL • Udalak informatika ikastaroak antolatu ditu KZ Gunean, Power Point eta Blog-en sorreren inguruan. Klaseak egunean bi orduz eta astean bi egunez eskainiko dira, 19:00etatik 21:00etara. Talde bakoitzean gehienez 8 pertsona onartuko dira eta ikastaro bakoitzaren prezioa 35 eurokoa da. Izen emateak Aurrera Plazako Udal Bulegoetan edo 943 69 24 95 telefono zenbakian egin daitezke.

» EMAITZAK

Pilota Topaketaren finalak

Aurrebenjaminak		
Beñat Perurena-Aitor Galarza	12	
Iker Zubeldia-Aimar Murua	6	
Benjaminak		
Oier Zubeldia-Mattin Lakuntza	12	
Lander Karrera-Xabier Perurena	7	
Alebinak		
Juanfe Agirre-Irazustabarrena	12	
Aitor Agirre-Gorka Altuna	7	
Infantilak		
Unai Eizmendi-Haritz Zabala	12	
Beñat Beloki-Mikel Luzuriaga	10	
Kadeteak		
Eñaut Larrea-Joseba Arrospe	12	
David Artola-Julen Otamendi	1	

Zaldibarko Txapelketa

22 urtez azpikoen finala		
Jon Jaunarena	22	
Garralda	2	

Lau t'erdiko Elite Maila

Final laurdenak		
Jon Jaunarena	22	
Larrañaga	15	
Oharra: Albisuren aurka jokatu du finalerdia Jaunarenak. Partida gaur 19:30an izango da, Sopelan.		

'Ni ere pilotari' Paleta Goma Txapelketa

Alebinak		
-----------------	--	--

Ariane Huici-Ariane Hatxa	4
Uxue Murillo-Garbiñe Larrea	18
Infantilak	
Amair Lakuntza-Ekibe Petriati	12
Oihane Carrasco-Maite Siles	22
Seniorrak	
L. Zarranton-Olaia Eizagirre	22
Irati Lakuntza-Amaia Nagore	9
Andrea Casares-A. Ezkurdia	4
Saioa Gonzalez-Lide Huitzi	22
Seniorrak	
Susana Muneta-Asun Diez	30
Maite Urtaşun-Maria Urtaşun	17
Rebeka Contin-Iera Agirre	30
Saioa Aristorena-Judith Etxarri	15



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Azoka

■ **Tolosa.** Laskorain Ikastolak antolatzen duen Merkatu Txikiaren azken eguna da gaurkoa. Kultur Etxean, hortaz, «beherapenen beherapenak» izango dira gaurkoan eta euro bakar baten truke gauza asko erosi ahal izango da. Ordutegia honakoa da: 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Erakusketa

■ **Tolosa.** Natura 2000 erakusketari ibiltaria Aranburu Jauregian, bihar, hilak 6.

Kontzertua

■ **Tolosa.** Gariren kontzertua ostiralean, hilak 8, Bonberenean 22:30ean.
■ **Tolosa.** Irrati maratoia larunbatean, hilak 9, 11:00etatik aurrera Bonberenean eta Biok taldearen kontzertua 22:30ean.

■ **Tolosa.** Juan Mari Beltranen *Ttakun tta ttakun* CDaren aurkezpen kontzertua Leidor aretoan larunbatean, hilak 9, 20:30ean. Kukai Dantza Taldeko Jon Maya eta Vanesa Castaño eta Hernaniko musika eskolako ikasle txalapartariak ere parte hartuko dute.

Txontxongiloak

■ **Tolosa.** Los Duendes txontxongilo taldearen *La Capercucita no, gracias* lana larunbatean, hilak 9, Topic-en 17:00etan eta igandearen, hilak 10, 12:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 0648.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan iritzien erantzukizunik.

Les Petits Chanteurs de Saint-Marc abesbatzako haurrek ordu eta erdiko kontzertua eskaini zuten herenegun Tolosako Leidor antzokian.

Ahotsik goxoenak

ERREDAKZIOA

Emanaldi luzea eskaini zuten Les Petits Chanteurs de Saint-Marc abesbatzako gaztetxoek herenegun Leidor antzokian. Ordu eta erdiko kontzertua eskaini zuten, gehiena euren hizkuntzan, frantsesez, baina gaztelaniazko abestiren bat ere entzun ahal izan zen.

Les Petits Chanteurs de Saint-Marc-eko abeslari gazteak *Los Chicos del Coro* izengoitiarekin egin dira ezagun, izen bereko filmeko protagonistak izan zirelako, hain justu.

Tolosan abesti ezagun asko eskaini zituzten; gregorianotik hasi eta XX. mendera arteko musika sakratua entzun ahal izan zen, baina erakargarriena, agian, euren azken diskoko abestiak izan ziren.



Hamar eta hamabost urte bitarteko neska-mutilek osatzen dute Frantziako abesbatza. NEKA

A Agurrak



Zorionak Oinatz!

Oinatz Errazkin Otamendik hilaren 2an bi urte bete zituen. Zorionak eta muxu goxo bat familia guztiaren partetik.



Zorionak!

Maria Dolores (Anoeta).

Zorionak eta muxu handi bat zure senarraren partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



HITZAK **bi sarrera** pare ditu

**AKABA BERA BERA
BM RIBARROJA**

eskubaloit partidarako
Urtarrilak 9 • Larunbata • Bidebieta kiroldegian

HITZAK **bi sarrera** pare ditu

Juan M^a Beltranek eskainiko duen
ikuskitzunerako

Urtarrilak 9 • Larunbata • 20:30ean Tolosako Leidor aretoan

sarrerak



sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira